

8. Buletina

2013ko OTSAILA

LAN OSASUN ALORREKO BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOAN EZARRITAKO ZEHAPENEN ERREGISTROA: PARTZIALA ETA URRIA.**
- 2. ELAK LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO DIRU FUNTSEN BANAKETAREN KONTRAKO JARRERA BERRETSI DU NAFARROAN.**
- 3. GOBERNUA BIDEA URRATZEN ARI DA, MUTUALITATEEN KUDEAKETAREN ERREFORMA EGITEKO.**
- 4. GOBERNUAK KALTE-ORDAINEN BAREMO BAT EGUNERATU DU.**
- 5. LAN OSASUNA ELAKO 13. KONGRESUAN.**
- 6. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2013KO OTSAILA.**

8. Buletina

2013ko OTSAILA

1. LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOAN EZARRITAKO ZEHAPENEN ERREGISTROA: PARTZIALA ETA URRIA

2012ko abenduaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian azaroaren 21eko 244/2012 Dekretua, **lan-arriskuen prebentzioko arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak argitaratzeko dena, eta enpresa zigortuen erregistroa sortzeko dena.**

Aipaturiko dekretuaren xedea prozedura bat ezartzea da, lan-arriskuen prebentzioko hauste oso larriengatik EAEko lurraldean ezarri diren zehapenak argitaratzeko, eta baita enpresa zigortuen erregistroa sortzea ere. Zehapenak ez dira argitaratuko irmoak izan arte (administrazio-bidean eta auzibidean), eta enpresa zigortuari jakinarazi arte. Enpresei ezarritako zehapenak argitaratzeko prozedura arautzea noiz garatuko zen zain zegoen (Lan Arriskuen Prebentzioko Legearen 49. art.).

Eusko Jaurlaritzak aipatu den dekretuaren bidez bete egin du legearen agindua, baina egin duen erregulazioa partziala eta urria da. ELAk horrekiko egin izan duen eskaera, zehapen oso larriak ez ezik —oso gutxi baitira—, larriak ere argitaratzekoa izan da. Gainera, gure ustez administrazio-bidean irmoak izan bezain laster argitaratu beharko lirateke, administrazioarekiko auzibidetik errekurritu badira ere.

Gogoan izan 2006. urtean ere agindu bat emana zuela Eusko Jaurlaritzak, eta gaia irizpide zabalago batez erregulatu zuela (orduan zehapen larriak eta oso larriak aipatzen ziren). Hala ere, aipaturiko agindua Confebask-ek errekurritu zuen, lan-legeria garatu ez ezik legegintza-arloan ere sartzen zelakoan, eta gai horretako legegintza-eskumena Estatuari dagokiolakoan.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion Confebaski, eta Eusko Jaurlaritzaren agindua indargabetu zuen. Gero, estatu-esparruan maiatzaren 4ko 597/2007 Errege Dekretua eman zen, zehapenen argitalpen-prozedura arautzeko dena. Berriki argitaratu den dekretua estatu-esparruko errege-dekretura egokitu da hertsiki, Confebaskek hasieratik aldeztu zituen mugak dituela; hau da, lan-arriskuen arloko zehapenen erregistroaren eragina albat gehien murriztuz. Izan ere, zehapen oso larriak bakarrik argitaratzen badira, oso bakanak direnez, erregistroaren eragina oso mugatua izango da.

Ondorioz, egon egongo da zehapenen erregistro bat, baina enpresek lasai-lasai jarraituko dute, zehapen gutxi ezartzen baitiete, eta gutxi horietako gehienak ezkutuan geratuko baitira.

2. ELAK LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO DIRU FUNTSEN BANAKETAREN KONTRAKO JARRERA BERRETSI DU NAFARROAN

2012.eko azaroaren 28an Lan Osasunerako Nafar Institutuko Kontseiluaren bilera izan zen. Bilerak puntu nagusi bat izan zuen, hain zuzen ere Lan Arriskuen Fundazioaren diru funtsen banaketa 2012. urterako.

Beste behin, CCOO, UGT eta CEN patronalak 460,361 euro banatu zituzten guztira (153,453,66 bakoitzak), inongo kontrol eta baldintzarik ezarri gabe. Are gehiago, inongo lotsarik gabe onartzen dute diru hori sindikatu horietako "lan osasun alorrak ordaintzeko" erabiko dela. ELAk bilera horretan salatu zuen lan arriskuen prebentziorako funtsak UGT, CCOO eta patronala finantziatzeko erabiltzen direla Nafarroan, langileen lan osasun eta segurtasuna albo batetara utzita.

Eskandalu hutsa da Kontseilu honetan diru funts horien erabilerari buruzko informazioa ematea soilik, aurkeztutako ekintza planak betearazteko inolako kontrolik ezarri gabe.

Era horretara, lan arriskuen prebentziorako funtsen banaketak Madrilen erabakitako eredu bat betearazten du, besterik gabe. Eredu honek porrot egin du, azken urteetan prebentzio arloan milioika euro banatu arren langileen lan osasun eta segurtasunean ez baita inolako onurarik izan.

Gai honen inguruan ELAren jarrera ezaguna da jadanik. Eredu aldaketa bat eskatzen dugu, eta horretarako ondorengo aldarrikatzen dugu:

- Nafarroan kokatutako Lan Istripu eta Gaixotasunen Mutualitateek sortutako funtsen soberakinak Nafarroan bertan gera daitezela, Nafar Institutoaren Kontseiluak berak banatu ahal izateko.
- Irizpide honetan oinarritzen ez den diru banaketarik ez onartzeko, ezta Estatuan erabakitako ereduak baldintzatutako dirurik ere.

ARAU BERRIA INDARREAN SARTU ARTE MUTUALITATEZ ALDATZEA ERAGOTZITA

3. ESPAINIAKO GOBERNUA BIDEA URRATZEN ARI DA, MUTUALITATEEN KUDEAKETAREN ERREFORMA EGITEKO

Aspalditxotik ELAtik salatu izan dugunez, ondoz ondoko gobernuek, gizarte-murrizketen eta privatizazioen politiken barruan, gero eta eskumen gehiago eman izan diete mutualitate patronalei, jarduneko langileen osasunaren kontrolari dagokionez.

Honez gero ezaguna denez, gobernuaren erreforma garrantzitsu bat prestatzen ari da gai horren inguruan. Abuztuaren 1eko legean ezarritakoari jarraiki erreformaren nondik norakoa zehaztu beharko zen iazko urtea amaitu aurretik. Erreforma horri honela deitzen diote modu eufemistikoan: "Gizarte Segurantzaren sistema egokitzea eta eraberritzea". Baina langileok ondotxo dakigu zer dagoen horren azpian: murrizketa-sorta bat, beste pauso bat osasunaren sistema publikoa desmuntatzeko bidean, helmuga privatizazioa eta enpresarien menpeko negozioa izanik.

Mutualitateen eskaera nagusia —gaixotasun arruntetik alta eman ahal izatea, Lan ministroak Mutualitateen Elkartearen biltzarrean ontzat eman zuena— onartzen duten bitartean, erreforma horrek ziurrenera kudeaketa- eta kontrol-ahalmen handiagoa emango die mutualitate patronalei.

Iragarritako erreforma hori ez da oraingoz zehaztu, seguru aski jarduneko langileen osasunaren negozioa lortzeko lehiatzen diren korporazio-interesak direla-eta; baina bitartean PPren gobernuak, Estatuko aurrekontu orokorren “saski-naski”aren barruan, xedapen bat ezarri du. Horren arabera enpresek mutualitateekin egiten dituzten hitzarmenak, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen kudeaketa egiteko eta gertakizun arrunten kudeaketa egiteko, mantenduko dira indarrean, itundutako klausula eta baldintzekin, harik eta mutualitateen araubide juridikoa eguneratzeko erreforma indarrean sartzen den arte. Azken batean, mutualitatez aldatzeko edo hitzarmenaren baldintzak aldatzeko aukerak eragotzita geratuko dira *sine die*, aipaturiko erreforma indarrean sartzen den arte.

Hala ere, guztiz zilegi izango da negoziazio kolektiboko enpresa-mailako akordioetan gertakizun arrunta mutualitateen menpe uzteko aukera mugatzea; eta mutualitate batekin egindako akordioa indarrean badago, akordioaren indarraldiaren amaieran sistema publikora itzularaztea.

Negoiazio kolektiboan sartzeko moduko testuak

Enpresak sistema publikoan gordeko ditu: gertakizun arrunten (gaixotasun arrunta eta lanez kanpoko istripua) ondoriozko Aldi Baterako Ezintasuna dela-eta eman beharreko diru-prestazioen estaldura eta, halaber, gertakizun horiengatiko alta eta baje osasun-kontrola. Ardura horiek ezin izango dira utzi Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzaileen esku (lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateak/MATEP).

Kudeaketa hori mutualitate batekin hitzarturik duten enpresetarako:

Enpresak, mutualitatearekin duen hitzarmena amaitu baino gutxienez hilabete bat lehenago, uko egingo hitzarmena luzatzeko aukerari. Beraz, gertakizun arrunten (gaixotasun arrunta eta lanez kanpoko istripua) ondoriozko Aldi Baterako Ezintasuna dela-eta eman beharreko diru-prestazioen estaldura eta, halaber, gertakizun horiengatiko alta eta baje osasun-kontrola ez du utziko mutualitate baten ardurapean.

4. ESPAINIAKO GOBERNUAK KALTE-ORDAINEN BAREMO BAT EGUNERATU DU, 2005AZ GEROZTIK IZOZTURIK EGON DENA, LAN-ISTRIPUZ EDO LANBIDE-GAIXOTASUNEZ ERAGINDAKO BALIAEZINTASUNIK GABEKO LESIOENGATIK EMAN BEHARREKO KALTE-ORDAINEN BAREMOA.

Urtarrilaren 30eko BOEn argitaratu denez, Gobernuak eguneratu du, %19'7 igoz, 2005eko apiriletik izozturik zeuden kalte-ordainen baremoa, lan-istripuz edo lanbide-gaixotasunez eragindako baliaezintasunik gabeko lesioengatik, mutilazioengatik eta deformazioengatik.

Eguneratzea, berandu heltzeaz gain, ez da nahikoa izan KPIren igoera berdintzeko. Gainera, 2005-2013 bitarteko urteetan kalte-ordainak onartu zaizkien langileek galerak izan dituzte, eguneratu gabeko diru-kopuruetan onartu baitzaizkie.

“Oroharreko zenbatekoan” ematen diren kalte-ordain horien diru-kopuruak txikiak izateaz gain, Gobernuak jarraipena ematen dio bidegabeko sistema zahar bati, alegia, lan-istripuz eta lanbide-gaixotasunez eragindako baliaezintasunik gabeko aztarnak konpentsatzeko sistema bati. Gogoan izan, bestalde, sistemak esku ematen diela MUTUALITATEEI izapideak egin ditzaten, kalte-ordaina aitortzeari begira, eta sarri askotan mutualitateek ez dutela prozedura hasten, eta langileek berek erreklamatu behar dituztela. Beste batzuetan, lesioa “larria” bada, mutualitateek berek aplikatzen dute kalte-ordainen baremoa, eta eragindako kaltea ordaindutzat jotzen saiatzen dira, horretarako lesioaren larritasuna gutxiagotuz eta eman litezkeen bestelako prestazioen aitortza saihestuz.

Dena dela, aipaturikoa bezain larria eta onartezina prebentzio-zerbitzuen esku hartzerik eza da. Izan ere, lanbide-gaixotasunaren eiteko diagnostiko bat ikusita —lan-hipoakusiaren kasuan adibidez—, ez dute prozedura hasten lanbide-gaixotasunaren zantzua jakinaraziz. Utzikeria horrek oztopatzen die langileei lan-jardueraren ondoriozko kalteak onartzea eta ordaina jasotzea.

5. LAN OSASUNA ELAREN 13. KONGRESUAN

Urtarrilan ELA-k bere 13. Kongresua ospatu zuen. Lan osasun alorrak, hainbat zuzenketa aurkeztu zituen lan osasuna ekintza sindikalean txertatzearen beharra azpimarratzeko asmoz. Hemen doakizue bertan zehatzago azaldukoak:

“ Gaur enmienda hau aurkeztearen arrazoia, osasunaren babesa erakunde guztiaren eguneroko ekintza sindikalean sartzea guztiz beharrezkoa dela uste dugulako da. Ezin da lan osasun alorrean solik gelditu. Prebentzio arloan ekintzak bultzatu behar ditugu, sindikatu hontan parte hartzen duten persona guzti-guztiek, beren esparruetan garatzeko aukera izan dezaten.

Lan ezbeharren datuak oso larriak dira. Ponentziak berak esaten duen bezala, kongresu arteko azken lau urte hauetan 262 langilek bizitza galdu dute lan istripu baten ondorioz. Aurreko urtean, iaz, 49 izan ziren. Gaixotasun profesionalen kasua oraindik ere larriagoa da, ez baitira inon erregistratzen eta ikustera ematen diren eskasak, adibidez, amiantoarekin erlazionaturako 29 hildakoak 2012.an, infradeklarazio arazo larriaren punta baino ez dira.

Ezin dugu onartu inolaz ere langile guzti hauen bizitzak estatistiketan azaltzen diren zenbaki hutsak izatea. Askotan errepikatzen dugun bezala, lan osasuna eta segurtasuna gizarte arazo larria da, horregaitik, ekintza sindikaleko esparru guztietatik aurre egin behar diogu. Gizarteari arazo honen benetako dimentsioa transmititu behar diogu, instituzio eta klase politikoari arlo honetan konpromiso handiagoa exijituz.

Lan osasuna, langile-klasearen bizitzan duen garrantziagatik, borroka sindikalaren funtsezko oinarri bezala ulertu behar dugu. Ekintza gehiago garatu behar ditugu eta ditugun tresnen erabilera handitu, langileon lan baldintzetan hobekuntzak lortzeko. Lan baldintzak baitira, lan osasuntsu bat edo lan istripu edo gaixotasun bat pairatzeko edo ez baldintzatzen dutenak .

Horretarako, lan osasun alorraren eta federazioen arteko lan bateratua ezinbestekoa da. Lan estrategiak definitu behar ditugu prebentzio arloan hobekuntzak eskatzeko, edo beste era batera esanda, gure bizitzan hobekuntzak exijitzeko. Lan osasuna, bai enpresetako eta bai organizazio honetako estruktura guztietako agendetan presente egon behar da. Honela, ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboaren bitartez, legeak ezarritakoa baino gehiago lortzeko aukera izango dugu.

Helburu hau lortzeko, prebentzio delegatuen eta baita estrukturalako jendearen formakuntza indartzea ezinbestekoa da, guztiz oinarrikoa eta bidezkoa dena exijitzeko: lan osasuntsua eta segurua.”

Bide hau jorratzen hasi gara. Oraindik ibilbide luzea falta zaigu, baina ekinean jarraituko dugu.

6. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2013KO OTSAILA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	1
GIPUZKOA	2
ARABA	1
NAFARROA	0
GUZTIRA	4

*Datuak otsailaren 7arte